

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Sagardoaren
lurraldea
El territorio
de la sidra

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel: 00 34 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:

2016ko txotx irekiera. XXIII. Sagardo Berriaren Eguna 2016.

Data: 2016ko urtarrilak 13.

Ordua: 12:00.

Tokia:

Prentsaurrekoa:
Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa
Kale Nagusia, 48
20115 Astigarraga

Txotx irekiera:

Zelaia Sagardotegia
Martindegi auzoa, 29
20120 Hernani

Deskribapena:

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urtarrilaren 13an XXIII. Sagardo Berriaren Eguna 2016 ospatuko da txotx denboraldi berriari hasiera emateko. Aurtengo gonbidatua **ARITZ ARANBURU surflaria** izango da. Aurten ere **txotx irekierako protokoloa** izango da.

Egitaraua:

11:30-12:00: Komunikabideei akreditazioak emango zaizkie **Sagardoetxean**.

12:00: Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2015eko uztaeren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

12:45: Aritz Aranburuk **sagarrondo** bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:30: Txotx irekierako protokoloa: txalapartarien deiarekin batera, sagar dantzak eta sagardogileen soka dantzak Aritz Aranburu kupelera gerturatuko dute.

13:45: Zelaia sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda **lehen kupela irekiko** du Aritz Aranburuk eta honekin batera 2016ko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

18:00-20:30: Pintxotx Astigarraga eta Hernaniko tabernetan.

21:00: Herriko elkarten afaria **Rezola sagardotegietan**.

Oharrak:

Asistentzia baieztatzea beharrezkoa da akreditazioak pertsonalizatu ahal izateko. Akreditazioak Sagardoetxea Museoa banatuko dira 11:30etatik 12:30etara bitartean eta Zelaia sagardotegian 13:00etatik 14:00etara bitartean.

Bestalde, XXIII. Sagardo Berriaren Eguneko protagonistei elkarrizketak egiteko bi gune ezarriko dira: bata, Sagardoetxea Museoa sagarrondoa landatu ostean, eta bestea, Zelaia sagardotegian txotx irekieraren ostean. Elkarrizketen kudeaketa hobetzeko asmoz, **elkarrizketak egiteko tartea baieztatzea** eskatzen da.

Kontuan izan aurten ere 13:30etan emango zaiola hasiera sagardotegian egingo den irekierari **txotx irekierako protokoloarekin**. Sagardoaren Lurraldeako antolakuntza taldea bertan izango da argibide gehiago emateko.

Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)
Telf: 943 550 575
e-maila: info@sagardoarenlurraldea.com